

Kontuan izan informazio batzuk aldatu egin daitezke uneko baldintza sanitarioen arabera.

GROTTES
DE SARAKO
LEZEAK

JAKIN BEHAR DUZUN GUZTIA SARAKO LEZEEN BISITATZEKO !

DENBORAZ KANPOKO BISITA, INGURUNE NATURALA BABESTU BATEAN.

Larrun pean eta Donibane Lohizunetik 15 kilometrotan.

Lurraren sakonetan egindako 45 minutuko bisita gidatu baten bidez, ezagutu urak zizelkatu duen bitxikeri geologikoak eta sentitu gizakiak naturarekin batu dituen milaka urteko lotura hori !

SARBIDEA

Autoz : A63 Autobidetik, Baiona, Miarritze edo Donibane Lohizuneko irteera hartu eta SARA eta SARAKO LEZEAK ezaupideak segitu.

Autobusez : Donibane Lohizunetik "Hegobus"ekin.

INFORMAZIO PRAKTIKOAK :

- Bisitari kopurua mugatua dela eta, **aintzineko erreserbak abantailatzen ditugu.**
- 3 aparkaleku badaude auto eta autokarabanentzako.
- Lezearen barnean ez dira onartzen : animaliak, haur karrosak, argazki eta bideo ateratzea. Tabernan ez dira animaliak onartzen ere.
- Taberna/kafetegia, piknik gunea eta orogarri denda aurkituko dituzu.
- Ez baldin baduzu bisita euskaraz erreserbatzen ahal, urrik den itzulpen audiodia bat proposatzen dautzugu (telefonoan deskargatuz).
- Bisita aterpean pasatzen da, eta 14 gradoak dira lezearen sakonean.

COVID-19 AURRE EGITEKO OSASUN NEURRIAK



SARREREN SALMENTA ONLINE : truke fisikoak murrizteko eta bisitari talde txikiak errezki kudeatzeko.



HARTU ZURE MASKA EDERRENA ! Maska janztea baitezpadakoa da bisitari guztientzat (11 urtetik aurrera), baita gure ekiparentzat ere.



MUGAK ETA DISTANTZIAK : bisitari kopurua mugatua da eta metro 1eko distantzia errespetatu behar da. Markak lagunduko dizute.



DESINFEKZIOA : Harremanetarako puntuak egunero desinfektatzen ditugu. Gel hidroalkoholikoa eskuragarri izanen da gunearen harreran.

SARAKO LEZEAK, HAUXE DIRA ERE :



Naturgune babestua eta egokitua, non parke megalitikoak, piknik gunea eta kafetegi bat atxemen dituzu.



Soinuetan eta argietan egiten den bisita gidatua gure gidari errabiatu batekin !



Zaindua den kobazulo bat : barnean animaliak eta argazki ateratzea ez dira onartuak, gunearen flora eta faunari nahasmenduak gutxitzeko.

2022ko ORDUTEGIA :

- **2022/02/07 - 2022/03/31 :** astelehenetik ostiralera, 14:00etatik 17:00etara* eta larunbatetik igandera, 13:00etatik 17:00etara*.
- **04/01 - 09/30 :** Egutero 10:00etatik 18:00etara*
- **10/01 - 11/06 :** Egutero 10:00etatik 17:00etara*
- **2022/11/07 - 2022/12/31 :** astelehenetik ostiralera, 14:00etatik 17:00etara* eta larunbatetik igandera, 13:00etatik 17:00etara*.

* Otoi, zatozte bisita hasi baino 30 minutu lehenago.

2022ko PREZIOAK :

- **Heldua : 10€**
- **Haurra (5-13 urte) : 6€**
- **Nerabe (14-17 urte) & ikasle : 8,5€**
- **Ahalmen urriko pertsona : 6,5€** (aurrez kontsultatu)
- **Familia : 32€** (2 heldu et 3 haur)

SARRERAK AINTZINETIK EROSI EZAZU !

Erreserba aintzinetik egitea baitezpadakoa da:

- Sarako lezeen webgunetik : <https://reservation.grottesdesare.fr/>
- Euskal Herriko eta 64 departamentuko turismo bulegoen webgunetan edo harrera lekutan.

Nola egin ?

1. Erreserbatu linean eta hautatu zure bisitaren eguna eta ordua.
2. Lezeetan arribatu zaituz bititaren ordua baino 30 minutu lehenago, eta zure berrespena errakutsi ezazu [txarteldegian](#).
3. Horren truke, « Sarako lezeak » txartela ukanen duzu zure bisita gidatuan sartzeko. **Hala !**

